

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren kabinete burua

Elvira Obanos Chaurrondo

1965an jaio zen Iruñean.

Informazio Zientzietan lizentziatu zen Nafarroako Unibertsitatean (1988) eta Politika Zientzietako eta Soziologiako ikasketak egin ditu Madrilgo Konplutense Unibertsitatean eta UNEDen. Ingeleseko C1 titulua eta frantseseko maila aurreratua ditu.

Unibertsitatean ikasten ari zela, praktikak egin zituen Radio San Sebastián (Cadena Ser) eta Radio Popular Iruñan. Azken irrati honetan lanean ibili zen 1988 eta 1989. urteetan albistegietako erredaktore gisa. 1989an Nafarroako Cadena Ser irratian hasi zen lanean, lehenengo erredaktore gisa eta 2000. urtetik 2015era “Hoy por Hoy Navarra” irratsaioko arduradun eta esatari gisa.

Cadena Ser-en lanean ari zela, OTR Press (1990-93) eta Colpisa (1993-98) informazio agentzien Nafarroako korrespontsalietan aritu zen. Gainera, Diario de Noticias egunkariko zutabegilea da 2004tik eta kolaborazioak egin ditu telebistan elkarrizketako programa baten aurkezle gisa Localia TVn eta gaurkotasan gaiak jorratzen dituzten programetan esatari gida ETBn.

2015eko abuztuan Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren gabinete buru izendatu dute.